



**EUSKAL MENDIZALE
FEDERAZIOA**



EUSKAL GOI MENDI ESKOLA

Euskal Goi Mendi Eskolaren Araudia

***EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAK 2007-02-17AN ELGETAN
EGINDAKO BATZARREAN ONARTUA***

EGME-REN ARAUDIA

1. KAPITULUA

ERAKETA, IZAERA, IZENA ETA LOGOA,
HELBIDEA, HELBURUAK, OSAKETA, APLIKA DAITEKEEN ARAUDIA 03

2. KAPITULUA

EGME-KO KIDEAK, ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK,
SARTZEA, KIDE AKTIBO IZAERA BERTAN BEHERA UZTEA ETA GALTZEA,
KIDE AKTIBO IZAERA BERRESKURATZEA..... 04

3. KAPITULUA

TITULUEN HELBURUA, TITULU MOTAK, LIBURU AKADEMIKOA,
TITULUAK LORTZEKO IKASTAROEN DEIALDIAK
ETA GARAPENA..... 06

4. KAPITULUA

EGME-KO ORGANOAK, ZUZENDARITZA BATZORDEA,
BATZORDE TEKNIKOAK..... 07

5. KAPITULUA

EKONOMIA ARAUBIDEA, DIZIPLINA ARAUBIDEA, AGIRI
ARAUBIDEA..... 09

ERANSKINAK

EGME-N SARTZEA..... 10

1. KAPITULUA

1. artikulua.- Eraketa.

Araudi honek Euskal Goi Mendi Eskola-Escuela Vasca de Alta Montaña (aurrerantzean EGME) egituratzen du; erakunde horrek Lurralde Eskolak biltzen ditu: Arabako Goi Mendi Eskola (AGME), Bizkaiko Goi Mendi Eskola (BGME) eta Gipuzkoako Goi Mendi Eskola (GGME).

2. artikulua.- Izaera.

EGME eskola Euskal Mendizale Federazioaren Batzorde Tekniko bat da; araudi honek eta EMFren Estatutuek arautzen dute berorren funtzionamendua. Oro har, eskolaren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte osoari zuzentzen zaizkio, eta bereziki kirol federatuari.

3. artikulua.- Izena eta logoa.

Batzordearen izena Euskal Goi Mendi Eskola-Escuela Vasca de Alta Montaña (EGME-EVAM) da, eta logoaren ezaugarriak araudi honen lehenengo orrian ikus daitezke.

4. artikulua.- Helbidea

EGME eskolaren helbidea Estatutuetan agertzen den EMFren egoitzan dago. EGME eskolak bere jarduerak garatzeko lagatzen dizkieten beste eraikuntza edo azpiegitura batzuk ere izan eta/edo erabili ahal izango ditu, EMFko Zuzendaritza Batzordeak aurrez hala onartzen badu.

5. artikulua.- Helburuak.

5.1. EGME eskolaren helburu nagusia mendizaletasunarekin lotutako zeregin pedagogiko ororen zuzendaritza, antolaketa, garapena eta orientazioa egitea da, alderdi etikoa nahiz teknikoa kontuan hartuta, eta irakasteko orduan, kirol honen modalitate guztien urte osoko praktikan –modu sinpleenetatik hasita konplexuenera– lortutako metodo berriak eta aurrerapenak aplikatuko dira.

5.2. Modu osagarrian, kirol modalitate hauetan hezkuntzarekin eta kirolarekin lotutako alderdiak nahiz alderdi teknikoak, zientifikoak, etikoak, legalak eta historikoak ikertuko eta sustatuko ditu.

5.3. Oro har, 5.1 eta 5.2 artikuluetan deskribatutako helburuak lortzeko beharrezko zeregin guztiak egingo ditu, eta bereziki:

- a) Ikasketa planak sortuko eta garatuko ditu.
- b) Monitorean, instruktoreen edo borondate oneko irakasleen (amateur edo boluntario ere esaten zaie) tituluetarako ikastaroak antolatuko eta garatuko ditu.
- c) Irakaskuntza pedagogikoa eta praktikoa eskaintzeaz arduratuko diren irakasleak prestatuko eta, hala dagokionean, hautatuko eta ikuskatuko ditu.
- d) Etengabeko prestakuntzarako ikastaroen bitartez, tituludunen maila teknikoa eta pedagogikoa areagotuko du.
- e) Irizpide didaktikoak eta pedagogikoak homogeneizatzeko ahalegina egingo du.
- f) Autonomia Erkidegoetako eskolen arteko trukeetan parte hartuko du.
- g) Beste herrialde batzuetan antzeko eskumenak dituzten irakaskuntza erakundeekin erlazioak ezartzeko ahalegina sustatuko du.
- h) Euskarri pedagogiko eta didaktikoko baliabideak sortuko ditu, eta bibliografia eta ikus-entzunezko baliabideak EAEko hizkuntza ofizialetan argitaratuko ditu; bestalde, bere jarduerak garatzeko guneak aurkituko eta hornituko ditu.
- i) Bere espezialitateetatik ondorioztatutako kirol joera berrien aurrean jarrera irekia izango du.
- j) Kirol hauen nahiz hurbileko zientzien bilakaeran lortutako aurrerapenak eta metodo berriak erabiliko ditu.
- k) EMFren nahiz horri atxikitako taldeen prestakuntza eta dibulgazio beharrei erruz erantzuteko kide kopuru nahikoa izango du.
- l) Kideen aukeraketa kontu handiz egingo du, alderdi teknikoa nahiz etikoa, kirolari dagokiona eta pedagogikoa kontuan hartuz.

Helburu horiek lortzeko, EGME eskolak EMFk bere esku jarriko dituen baliabideak (giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, materialak, higigarriak nahiz higiezinak) erabiliko ditu. Material hori EGMEren eta EMFren jabetzakoa izango da beti.

6. artikulua.- Osaketa.

EGME eskola II. kapituluaren ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituzten eta EGMEren titulua duten Lurralde Eskoletako kide guztiak osatzen dute, bai eta bere organoetako kideek nahiz EMFk egindako hitzarmenen bitartez ezarritako beste guztiak ere.

7. artikulua.- Aplikatu daitezkeen araudia.

EGME eskola Araudi honen eta EMFren Estatutuek arautuko dute, eta, hala dagokionean, autonomia erkidegoan nahiz estatuan indarrean dagoen legediak.

2. KAPITULUA

8. artikulua.- EGMEko kideak.

EGME eskolak ondoko kide motak izango ditu:

1.- Kide aktiboak.

2.- Kide ez-aktiboak.

3.- Lan utzialdi egoeran dauden kideak.

EGMEko kideak ez dira profesionalak, baina, hala ere, hala dagokionean, EGMEren irakaskuntza programan ezarritako ikastaroetara joatean egindako gastuak ordaintzeko EMFko Zuzendaritza Batzordeak ezarritako dituen egunsariak jasotzeko eskubidea izango dute.

8.1. Kide aktiboak.

EGME eskolako kide aktiboak dira bertako titulua duten kirolari guztiak. EGMEko kide aktiboek bere tituluari dagozkion irakaskuntza jarduerak egin dituztela edo EMFren baitan zeregin pedagogikoetan edo administratiboetan parte hartu dutela egiaztatzen beharko dute urtero.

8.2. Kide ez-aktiboak.

Irakaskuntza jarduerarik garatzen ez dutelako edo justifikatu gabeko arrazoiren batengatik urte bete baino gehiago badaramate EGMEekin lan egin gabe nahiz arau-hausteren bat egiteagatik beren eskubideak (baina ez kide izaera) galdu dituztenak kide ez-aktibotzat joko dira.

8.3. Lan utzialdi egoeran dauden kideak.

Idatziz eskatu duten guztiak izango dute egoera hori. Modu berean, "kide ez-aktibo" egoerara igaroko dira, lan utzialdi egoeran egonda, horretarako ezarritako denbora, bi urtekoa, gainditzen dutenak.

8.4. Kide ez-aktibo batek irakaskuntzan hasi nahi baldin badu, aurretik eta idatziz sartzeko eskaera egin beharko dio EGMEko Zuzendariari, eta horretarako beharrezko birziklatzea egin beharko du; beraz, bere espezialitatean egunean dagoela frogatu beharko du, bai fisikoki eta bai ezagutza teknikoei nahiz bere espezialitatearen praktikari dagokienez ere.

Kide ez-aktibo orok egoera aktiboan zegoenean irakaskuntza jarduerak garatzeko EGMEk utzitako material guztiak itzuli beharko ditu.

9. artikulua.- Kideen eskubideak. EGMEko kide aktiboek ondoko eskubideak izango dituzte:

a) Etengabeko prestakuntza jasotzeko.

b) Egiaztatutako pertsonala izateko, urteroko berrespenekin.

c) 4 urtean gehienez ere 2 urteko lan utzialdia eskatzeko; eskaera idatziz egin beharko da eta EGMEko Zuzendariari zuzenduko zaio. Lan utzialdiak ez du egoera ez-aktiboan dagoela adieraziko, 8.3 puntuan zehaztutako kasuan izan ezik.

Lan utzialdiaren ondoren itzultzeko baimena idatziz eskatu beharko zaio EGMEko Zuzendariari, eta eskaera itzuli nahi den eguna baino 30 egun lehenago egin beharko da, gutxienez. Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du interesatua irakaskuntza praktikorako baldintza fisiko eta tekniko egokietan dagoen ala ez, eta horren arabera hartuko du erabakia.

d) EGMEko kide den heinean, egoera horri eragingo dion edozein kudeaketari buruzko informazio pertsonala jasotzeko.

e) EGMEko kide izateari behin betikoz uzteko eskaera egiteko.

f) Araudi honen aurkako hitzarmenen eta jarduketaren kontra egiteko, berrogei egun naturaleko epean, auzi jartzaileak hitzarmen edo jarduketa horien berri izan duen egunetik hasita.

g) EGMEko gainerako kideak zein diren jakiteko, eta kontuen egoeraren nahiz jardueraren garapenaren berri izateko.

h) Hala dagokionean, hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea erabiltzeko EGMEko Batzar Nagusietan; kasu

- horietan, ezin izango zaio norberaren ordezkaritza EGMEko beste kide aktibo bati laga.
- i) Araudi honekin bat etorritik, EGMEko Zuzendaritza organoetan parte hartzeko, horietarako hautagai nahiz hautesle izanik.
 - j) EGMEko kideen fitxategian agertzeko eta horren logoa erabiltzeko.
 - k) Araudi honen ale bat izateko eta EGMEko zuzendaritza organoen aurrean eskaerak eta kexuak idatziz aurkezteko.
 - l) Taldeko ekitaldi sozialetan parte hartzeko eta EGMEko kideek erabiltzeko elementuez (lokala, liburutegia...) gozatzeko, baina, betiere, Zuzendaritza Batzordeak kasu bakoitzerako ezarritako moduan.
 - m) Diziplina neurriak hartu aurretik hitz egiteko aukera izateko, eta neurri horiek bultzatu dituzten arrazoi berri izateko; arrazoi horiek, EGMEko kide izanik, beren betebeharrak ez betetzean oinarritu ahal izango dira soilik.

10. artikulua.- Kideen betebeharrak.

EGMEko kideek betebeharrak eta baldintza hauek dituzte kide aktibo izaten jarraitu ahal izateko:

- a) Honako araudia eta EMFko beste batzorde tekniko batzuek tituluari dagozkion zeregin bereziekin lotuta prestatutako arauak betetzea.
- b) Urte horretarako EMFk emandako kirol lizentzia izatea; baldintza hau betetzea derrigorrezkoa da kide aktibo guztientzat, eta lizentzia indarrean izan gabe debekatuta egongo da irakasle lanetan aritzea.
- c) EGMEren jardueretan eta ekitaldietan ahal beste laguntzea.
- d) Zeregina segurtasunez eta eraginkortasunez garatu ahal izateko gaitasun fisiko eta tekniko erabatekoak izatea.
- e) Bere espezialitatearen bilakaera zehaztuko duten teknika berrietara egokitzea.
- f) EGMEk aldi-aldi antolatuko dituen etengabeko prestakuntzako ikastaroetara joatea; baldintza hau nahitaezkoa izango da dagokion espezialitateko irakaskuntza koadroan parte hartzeko.
- g) Ikastaro bat zuzendu ahal izateko, aurreko baldintza betetzeaz gain, beharrezkoa izango da baita ere dagokion espezialitatean gutxienez bi ikastaro emanda izatea.
- h) Ikastaro batera joateko aukera duela adierazi duenean, ikastaro horretara joatea.
- i) Ikastaro baten zuzendaritza onartzen duen kideak ahal duen guztia egin beharko du ikastaro hori baldintza egokienetan garatzeko.
- j) EGMEren eta EMFren irudiak, izen onak eta proiektio publikoak merezi duten duintasunarekin eta errespetuarekin lan egitea.
- k) Gainerako kideen, ikasleen, kirolarien edo EGMErekin eta EMFrekin lotutako nahiz lotu gabeko beste edozein pertsonaren ohorea, duintasuna eta intimitatea errespetatzea.
- l) EGMEko kide den neurrian, EGMEk edo EMFk kide egoerarekin lotuta hartutako erabakiak onartzea.

11. artikulua.- Sartzea

11.1. EGMEren sartzeko erabakia borondatezkoa eta banakakoa da, eta horregatik, kide guztiek Araudia onartzen dutela eta berori betetzeko konpromisoa hartzen dutela ulertzen da.

11.2. EGMEko kideek sinestamendu pertsonala jasoko dute, eta, gutxienez, honako hauek izan beharko ditu:

Titularraren argazkia zigilatuta.

Izen-abizenak.

NA zenbakia.

Titulua.

EMFko Lehendakariaren, EGMEko Zuzendariaren eta titularraren sinadurak.

Urteari dagokion zigilua

11.3. EGMEren sartzeko derrigorrezkoa izango da Araudi honetako eranskinean zehaztutako baldintzak betetzea.

12. artikulua.- Kide aktibo izaera bertan behera uztea eta galtzea.

Kide aktibo izaera bertan behera utzi ahal izango da diziplinako arau-hausteren bat egiten bada, Araudi honetan ezarritako baldintzak eta prozedurak kontuan hartuta.

Kide aktibo izaera galdu ahal izango da ondoko arrazoi hauetako bategatik:

- a) Titularraren borondatez, EGMEko Zuzendariari horren berri idatziz jakinarazi ondoren.
- b) 10. artikuluan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.
- c) Diziplinako arau-hauste oso larria egiteagatik.

d) Heriotzagatik.

13. artikulua.- Kide aktibo izaera berreskuratzea.

13.1. Kide aktibo izaera bere borondatez edo 10. artikuluan ezarritako betebeharrak (kideen betebeharrak) ez betetzeagatik galdu bada, EGMEko Zuzendariari idatziz zuzendutako gutun baten bidez egin ahal izango da izaera hori berreskuratzeke eskaera; gutunean eskaeraren arrazoiak azalduko dira, eta urte horretako EMFren kirol lizentziaren kopia ere igorriko da.

13.2. Galera arau-hauste arina egiteagatik gertatu bada: etenaldia amaitu eta automatikoki berreskuratuko da kide aktibo izaera.

13.3. Galera arau-hauste larria egiteagatik gertatu bada: EGMEko Zuzendariari zuzendutako gutun baten bidez egingo da eskaera, eskaeraren arrazoia azalduz eta urte horretako EMFren kirol lizentziaren kopia ere igorri. Bere espezialitateari dagokion irakaslanean egunean dagoela frogatu beharko du.

13.4. Lan utzialdia: automatikoki berreskuratzen da, behin lan utzialdia amaitu ondoren, eta 8.1. artikulua eta 9. artikuluko c letra aplikatuko dira. Bere espezialitateari dagokion irakaslanean egunean dagoela frogatu beharko du.

13.5. Kide aktibo izaera automatikoki berreskuratzen ez den kasuetan, berreskuratzeke eskaeren ebazpena Zuzendaritza Batzordeak onartuko du, eta horrek ezarriko du kide aktibo izaera berreskuratzeke modua, kasuan kasu.

3. KAPITULUA

14. artikulua.- Tituluen helburua. EGMEren helburuak betetzeko eta bertako teknikariak prestatzeko, EGMEk titulazio ikastaroak emango ditu mendiko kiroltako hezkuntza, lehiaketa eta aisialdi esparruetan.

Titulu horiek eskumen tekniko (kirol mailan) eta irakaskuntzarekin lotutakoa (irakaskuntza, dibulgazioa) ematen dute, baina inoiz ez gidaritza profesionalari dagokiona.

Titulu motak:

Titulu guztiak borondate onekoak dira (amateurra edo boluntarioa). Hiru gaitasun maila ezartzen dira.

MONITOREA

Motak:

- Mendiko monitorea.
- Eskaladako monitorea.
- Alpinismoko monitorea.
- Mendiko eskiko monitorea.
- Amildegiko monitorea.
- Espeleologiako monitorea.

Funtzioak: hasierako mailako nahiz 1. mailako kirolariak prestatzea (diziplinaren arabera)

INSTRUKTOREA

Motak.

- Mendiko instruktorea.
- Eskaladako instruktorea.
- Alpinismoko instruktorea.
- Mendiko eskiko instruktorea.
- Amildegiko instruktorea.
- Espeleologiako instruktorea.

Funtzioak: hasierako mailako eta hobekuntza mailako kirolariak prestatzea, 1. mailakoak eta 2. mailakoak (diziplinaren arabera).

IRAKASLEA

Motak:

- Mendiko irakaslea.
- Eskaladako irakaslea.
- Alpinismoko irakaslea.
- Mendiko eskiko irakaslea.
- Amildegiko irakaslea.
- Espeleologiako irakaslea.

Funtzioak: hasierako mailako, hobekuntza mailako eta espezializazio mailako kirolariak prestatzea, 1. mailakoak, 2. mailakoak eta 3. mailakoak (diziplinaren arabera).

Tituluak eta Liburu Akademikoa.

Tituluak

EGMEk emandako tituluetan, honako hauek agertu behar dute gutxienez:

- NA.
- Tituluaren maila eta espezializazioa.
- Titularraren izen-abizenak.
- Titulua eman den tokia eta data.
- EGMEren zigilua eta Zuzendariaren sinadura.
- EMFren zigilua eta Lehendakariaren sinadura.

Liburu Akademikoa.

Lehenengo titulua lortzeko unean, EGMEk Liburu Akademiko pertsonala emango dio ikasle bakoitzari.

Tituluak lortzeko ikastaroen deialdiak eta garapena

Tituluak lortzeko ikastaroak EGMEk zehaztutako aldizkakotasunarekin deituko dira, Lurralde Eskolen beharren arabera. EMFko Lehendakariak berrmatuko du ikastaroen garapena, eta baita etengabeko prestakuntzakoena eta birziklatzekoena ere.

4. KAPITULUA

15. artikulua.- EGMEko organoak

EGMEko organoak honako hauek dira:

Zuzendaritza Batzordea

Batzorde Teknikoak

16. artikulua.- Izaera eta funtzioak.

16.1 Zuzendaritza Batzordea da EGMEko organo betearazlea; EGMEko Zuzendariak ordezkatu du eta zuzendaria, bere aldetik, EMFko Zuzendaritza Batzordearen menpe egongo da organikoki.

16.2 Zuzendaritza Batzordearen funtzioa, bere erabakiei jarraiki, EGMEren helburuak betetzeko beharrezkoak diren irakaskuntzako, ikerketako eta dibulgazioko jarduerak proposatzea, zuzentzea eta koordinatzea da, betiere EGMEren erabakitakoarekin bat etorritik.

17. artikulua.- Eskumenak.

17.1 Monitorean, Instruktoaren eta Irakasleen tituluen nahiz beste titulu batzuen diseinua prestatzea, 14. artikuluan araberak (Tituluen helburua eta titulu motak), eta horiei dagozkien ikasketa planen garapena onartzea, helburu horretarako onartutako araudiekin bat etorritik.

17.2. Tituluen eta kirolarien prestakuntzaren ikasketa planen exekuzioa, kalitate kontrolerako tresnak ezarritik.

17.3. Teknikarien eta kirolarien prestakuntzarekin lotutako ezagutza eremuan ikerketa sustatzea eta garatzea, eta oinarri pedagogikoak prestatzea.

17.4. Kirolarien prestakuntzan ikasketa planen garapena onartzea, errendimendu maila guztietan.

17.5. EGMEko irakasleei eta teknikariei dagokienez, etengabeko prestakuntzarako, birziklatzeko nahiz tituludun berriei zuzendutako planen garapena onartzea.

17.6. EGMEren administrazio kudeaketa antolatzea.

17.7. EGMEren ordezkaritza funtzioak egitea.

18. artikulua.- Osaketa eta funtzionamendua.

Zuzendaritza Batzordea honako hauek osatzen dute: EGMEko Lehendakariak eta AGME,, BGME eta GGME Lurralde Eskoletako zuzendariak.

Zuzendaritza Batzordea dagokion zeregina aurrera eramateko behar beste aldiz bilduko da.

19. artikulua.- Batzorde Teknikoak

19.1. Batzorde Teknikoetan espezialitate edo diziplina bakoitzeko ordezkari batek parte hartuko du, hala, espezialitate guztiak ordezkaturata egon daitezzen.

19.2. Ondoko Batzorde Teknikoak ezartzen dira: Alpinismoa, Amildegia eta Espeleologia, Eskalada, Mendiko Eskia eta Mendia; atal berriak sortu ahal izango dira, edo daudenak kendu ahal izango dira, EGMEko Zuzendaritza Batzordearen erabakiz.

19.3. Batzorde Teknikoetako kideek 19.2 puntuan deskribatutako espezialitate baten edo gehiagoren irakaskuntzarako gaitasuna izango dute, eta beren misioa ikastaroen antolaketa eta garapena sustatzea nahiz tituluetako unitate didaktikoen eta azterketen prestakuntzan parte hartzea da. Bestalde, bere espezialitateko tituludunen kezkak jaso eta helarazi behar dituzte.

19.4. Batzorde Teknikoetako kideak Lurralde Eskolek izendatuko dituzte, eta dagozkien diziplinetako batzordekideak izango dira eskoletan.

19.5. EGMEko Batzorde Teknikoetako kideek hitza eta botoa izango dute; azken aukeran, EGMEko Zuzendariak izango du botoa egingo diren bilera guztietan.

19.6. Batzorde Teknikoetako kideek batzorde hori utzi ahal izango dute ondoko arrazoi hauengatik:

- a) Norberaren erabakiz.
- b) EGMEko edo EMFko Zuzendaritza Batzordearen erabakiz.
- c) Heriotza nahiz elbarritasun edo ezintasun egoera gertatu delako.
- d) Arau-hauste larria edo oso larria gertatu delako.

19.7. Batzorde Teknikoek, ikastaroak, irakaskuntza sistemak, monografikoak edo antzeko beste edozein jarduera antolatzeke eta garatzeko gainerako tituludunen laguntza eska dezakete, eta baita beste batzuen ere, mendizaletasunaren alderdi jakin bategatik duten interesa eta ezagutza kontuan hartuta.

Batzorde Teknikoen funtzioak une bakoitzeko beharretara egokituko dira, alderdi hauetan bereziki: Ikerketa eta Agiri Euskarriak, Ikasketa Planak eta Prestakuntza Jarduerak.

20. artikulua.- EGMEko Zuzendaria.

20.1. Izendapena: Zuzendariak EGMEko kide aktibo izan beharko du, eta EMFko Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du Lurralde Eskoletako Zuzendaritza Batzordeak proposatutako hautagaien artean. Hautagairik ez balego, EMFko Zuzendaritza Batzordeak hautagaiak proposatu ahal izango ditu, eta egoki deritzon pertsona izendatuko du. EGMEko Zuzendariak Zuzendaritza Batzordearen gehiengoaren onespina izan beharko du, eta agintaldia EMFko Zuzendaritza Batzordearena amaitzen denean amaituko du.

20.2. Funtzioak. EGMEko Zuzendariak honako funtzio hauek ditu:

- a) EGMEko zuzendaritza exekutiboa.
- b) Zuzendaritza Batzordearen bilerak zuzendu eta teknikari guztien koordinazio lana egin.
- c) Zuzendaritza Batzordearekin batera, EGMEren jardueren urteko memoria prestatu.
- d) Zuzendaritza Batzordearekin batera, kide gisa sartzeko eskaerak, lan utzialdirako eskaerak, kide izaera galtzeko eta berreskuratzeko eskaerak ebatzi.
- e) EGMEren baliabide ekonomikoen erabilera egokia zaindu.
- f) EGMEren ordezkariak.
- g) EGMEren Araudia nahiz bertako arauak une oro garatzen eta betetzen direla zaindu.
- h) Goi Mendiko gainerako Lurralde Eskolekin harremana izan, eta baita beste herrialde batzuetako antzeko erakunde teknikoekin ere.
- i) EMFk agindutako beste edozein.

EGMEko Zuzendariak kalitateko botoa izango du adostasunik lortzen ez den gatazketan. EMFko Lehendakariarekin aurrez kontsultatuta, ordezkariak funtzioak egoki deritzon EGMEko kideen esku utzi ahal izango ditu.

20.3 Zuzendariaren kargu uztea:

- a) Berak hala eskatuta.

- b) EMFko Zuzendaritza Batzordearen erabakiz.
- c) Heriotza nahiz elbarritasun edo ezintasun egoera gertatu delako.
- d) Arau-hauste larria edo oso larria gertatu delako.

21. artikulua- Lurralde Eskoletako Zuzendarien funtzioak.

- a) EGMEko Zuzendaritza Batzordean Lurralde Eskola ordezkatzea, hitz egiteko nahiz bozkatzeko eskubidearekin.
- b) Eskoletan lehentasuna ematen zaien prestakuntzako edo birziklatzeko jardueren egutegi bat proposatzea; ikastaro horiek EGMEren baitakoak izango dira eta hiru Lurralde Eskoletakoentzat irekiak izango dira.
- c) Lurralde Eskoletako batzarretan eta zuzendaritza batzordeetan EGMEko Zuzendaritza Batzordean erabakitako gaien berri ematea.

5. KAPITULUA

22. artikulua.- Ekonomia araubidea

22.1. EMFko Batzar Nagusiak onartutako aurrekontu arruntan bitartez lortuko ditu bere baliabideak EGMEk; bestalde, jardueretatik eta programetatik ere bai, eta horien arabera prestatuko da urteko aurrekontua.

22.2. EMFk esleitutako aurrekontutik iritsi ez diren baliabide ekonomiko guztien berri izan beharko du EMFko Zuzendaritza Batzordeak, eta baliabide horiek onartu egin beharko ditu.

22.3. EGMEk bere helburuak lortzera zuzenduko ditu diru sarrera guztiak.

23. artikulua.- Diziplina araubidea

23.1 Hala dagokionean, EMFren Estatutuetan aurreikusitako Kirol Diziplinari eta Lehiaketari buruzko Araudiaren aplikazioaren kalterik gabe, EGMEk, bere eskumenen esparruan, bere araudi berezia izango du.

23.2. EGMEren baitan Zuzendaritza Batzordeak du zigortzeko ahalmena. Arau-hausteak, duten garrantziaren arabera, oso larriak, larriak edo arinak izango dira.

23.3. Oso arau-hauste larriak izango dira:

- a) Arau-hauste larriak behin eta berriro egitea.
- b) EGMEren eta EMFren izen onaren kontrako ekintza edo jendaurreko adierazpen oro.
- c) EGMEren eta EMFren kontrako limurkeria suposatuko duen edozein ekintza edo ez egite.
- d) EGMEren izena behar ez bezala erabiltzea.
- e) Mendien istripua izan dutenei laguntza edo erreskatea ukatzea.
- f) Ezarritako zigorrak ez betetzea.

23.4. Arau-hauste larriak izango dira:

- a) Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.
- b) Mendiko segurtasun printzipioen kontrako ekintza oro, EGMEren jardueren baitan.
- c) Ikasturte batean, berorren zuzendariaren aginpidea ez onartzea.
- d) Aterpeetan eta berorietan egon daitekeen salbamendurako materialetan nahiz beste instalazio batzuetan edo natur ingurunean kalteak eragitea.
- e) Edozein ekipamendu edo baliabide natural edo artifizialetan –irakaskuntzarako prestatuta egon ala ez– kalteak nahita eragitea.
- f) EGMEren sinestamenduak edo bereizgarriak bertako kide ez direnei ematea edo uztea.
- g) Bere eskumenetik kanpoko gaiak, hau da, tituludunen prestakuntza planen eduki zehatzetatik eta, ondorioz, horiek esleitzen dituzten gaitasunetatik kanpoko gaiak, irakastea.

23.5. Arau-hauste arintzat joko da, oso larritzat edo larritzat tipifikatu gabe egonda, EGMEren arauak edo printzipio gidariak ez betetzea. Dena dela, arau-hauste arintzat joko dira:

- a) EGMEko kideari dagozkion funtzioak betetzen ari denean pertsoneri publikoki errespetu falta adieraztea.
- b) Etika falta EGMEren jardueretan.
- c) Instalazioak, aterpeak edo natur ingurunea zikintzea edo ez errespetatzea.

23.6. Arau-hausteak ondoren zehaztutako moduan zigortuko dira:

- a) Arau-hauste arinak: kargu-hartzeko gutuna; EGMEko kide aktibo izaera bertan behera utziko da hilabete batetik sei hilabete bitartean.
- b) Arau-hauste larriak: EGMEko kide aktibo izaera bertan behera utziko da urte batetik lau urte bitartean.
- c) Oso arau-hauste larriak: EGMEko kide aktibo izaera behin betikoz galduko da eta EGMEtik kanporatuko da.

23.7. Zigorra jasotzen duten guztiek EGMEko Zuzendaritza Batzordearen aurrean errekurtsioa aurkezteko eskubidea izango dute; horrek, bere aldetik, zuzenean erabaki ahal izango du edo EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordearen esku utzi ahal izango du azken erabakia.

24. artikulua.- Agiri araudia. EGMEk kideen erregistroa eramango du, eta baita egoki deritzon beste edozein jardueraren erregistroa ere.

ERANSKINA

EGME-N SARTZEA

1. Etorbizunean EGMEko kide izan nahi duen orok honako baldintzak bete behar ditu: EMFn federatuta egon behar du, adinez nagusi izan behar du, lehen mailako ikasketa titulua, antzekoa eta goragokoa izan behar du, sendagilearen ziurtagiria eta lehen sorospenetako ziurtagiria ere beharrezkoak dira, eta, bestalde, bere espezialitatean eskatzen diren gutxieneko baldintzekin bat etorriko den mendi historiala izan behar du.

2. Baldintza horiek kontuan hartuta, EGMEko Zuzendaritza Batzordeak onartu ondoren, eskatzailea EGMEko kide gisa onartzeko izangaitzat hartuko da, eta eskuratu nahi duen espezialitateari dagozkion azterketa teorikoa eta praktikoa egin ahal izango ditu.

3. Behin azterketak amaituta –azterketak egiteko modua eta emaitzak EGMEko Zuzendaritza Batzordeak eta espezialitate bakoitzeko Batzorde Teknikoak erabakiko dituzte–, izangaiak gaitasun pedagogikoko oinarritzko ikastaro bat egingo du, eta bere espezialitateari dagokion titulua lortuko du.

4. Barne sustapena. Beheragoko mailetakoko kideek edo izangaiak goragoko mailetakoko tituluak lortu nahi badituzte edo beste espezialitate batzuk eskuratu nahi badituzte, eskaera idatziz aurkeztu beharko diote EGMEko Zuzendaritza Batzordeari. Jarduera curriculumean espezialitate bakoitzerako eskatutako gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte, eta espezialitate bakoitzeko derrigorrezko birziklatzeak eginda izan behar dituzte. Ondoren, dagokion titulua lortzeko gaitasun pedagogikoko ikastaro bat gainditu beharko dute.

TITULU MOTAK ETA GUTXIENENKO BALDINTZAK, MAILAREN ARABERA

Titulu hauen helburua eskolari bere kideen gaitasunak ustiatzeko aukera emango dion irakasle taldea izatea da, hala, ikastaroen kalitateari handiena izan dezaten.

Hiru mailatan egituratu dira Mendia, Eskalada, Alpinismoa, Amildegia, Espeleologia eta Mendiko Eskia espezialitateak.

1. maila (Monitorea), 2. maila (Instruktorea), 3. maila (Irakaslea)

IZANGAIEN GUTXIENENKO BALDINTZAK

MENDIA

1. maila. MONITOREA

Mendizaletasuna praktikatzeko oinarria da, eta baita gainerako espezialitate eta diziplina guztietarako ere.

- Mendian 3 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Kartografia eta orientazioa menperatzea
- Erdi mailako mendirako oinarritzko materiala eta ekipoa ezagutzea
- Natur ingurunea ezagutzea
- Meteorologiako oinarritzko ezagutzak
- Mendian elikatze moduari buruzko oinarritzko ezagutzak
- Mendiko arriskuen oinarritzko ezagutzak
- 1. mailako ikastaroak emateko gaitasun pedagogikoa izatea

2. maila. INSTRUKTOREA

Uda garaian goi mendian prestatzen hasteko oinarria da.

- Goi mendian 4 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- AD zailtasuneko bideetatik igo izana, udan eta 2500 metrotik gorako garaieran
- Meteorologiako ezagutza aurreratuak
- GPSaren erabilera ondo ezagutzea
- Sokaren erabilerari buruzko oinarritzko ezagutzak izatea
- 1. eta 2. mailako ikastaroak antolatzeko, zuzentzeko eta emateko gaitasun pedagogikoa izatea
- 1. mailako (monitorea) baldintzak betetzea

3. maila. IRAKASLEA

Maila gorena da, eta 1. eta 2. mailako ikastaroak emateaz gain, bere Lurralde Eskolan mendiko batzordekide izateko hautagai izan daiteke, eta unitate didaktikoak, azterketak eta EGMEk egoki deritzen bestelakoak prestatzen lagundu beharko du.

- Mendian 5 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- GPSa eta ordenagailuko Oziexplorer edo Compe GPS programak ondo erabiltzen jakitea
- Meteorologia eta natur ingurunea oso ondo ezagutzea
- Hiru mailako ikastaroak antolatzeko, zuzentzeko, programatzeko eta emateko gaitasun pedagogikoa izatea
- 1. eta 2. mailako baldintzak betetzea

ESKALADA

1. maila. MONITOREA

Rokodromoetan eta hornitutako eskoletan kirol eskaladan hastera zuzendua, soka bateko luzerarekin hornitutako loturetatik zintzilikatze aukera dutenean

- Harkaitz eskaladan 3 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Rokodromoetan eta eskalada eskoletan eskalatu izana, bistako 6a+ baino goragoko mailako bideetan
- Banakako materiala ezagutzea
- Taldeko materiala ezagutzea
- Kirol eskaladako instalazioetako materiala ezagutzea
- Segurtasun katea ezagutzea
- Progresio teknikak ezagutzea
- Segurtasun teknikak ezagutzea
- 1. mailako ikastaroak emateko gaitasun pedagogikoa izatea

2. maila. INSTRUKTOREA. Bi luze baino gehiagoko hornitutako bideetan eskaladaren hobekuntzara zuzendua, bideen logistikak rappel egitea edo larri dabilen kide bati laguntzea eska dezakeela kontuan hartuta.

- Harkaitz eskaladan 4 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Hainbat luzetako hornitutako bideetan eskalatu izana, bistako 6b baino goragoko mailako bideetan
- Autoerreskaterako oinarritzko teknikak ezagutzea. Rappel teknikak ezagutzea
- Prestakuntza fisikoko oinarritzko ezagutzak
- Eskaladako aseguru finkoak ezagutzea
- Hainbat luzetako hormetan segurtasun eta progresio teknikak ezagutzea
- Meteorologiako ezagutza aurreratuak. Kartografiako eta orientazioko ezagutza aurreratuak
- 1. eta 2. mailako ikastaroak antolatzeko, zuzentzeko eta emateko gaitasun pedagogikoa izatea
- 1. mailako baldintzak betetzea

3. maila. IRAKASLEA. Erdi hornitutako edo hornitu gabeko hormetan abentura esparruaren ezagutza hobetzera zuzendua; Lurralde Eskolan mendiko batzordekide izateko hautagai izan daiteke, eta unitate didaktikoak, azterketak eta EGMEk egoki deritzon bestelakoak prestatzen lagundu beharko du.

- Harkaitz eskaladan 5 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Hainbat luzetako erdi hornitutako edo hornitu gabeko bideetan eskalatu izana, 6b-A2+ baino goragoko mailako bideetan
- Autoerreskaterako teknikak menperatzea
- Harkaitz ingurunea ezagutzea
- Eskalada artifizialeko eta horma handietako teknikak menperatzea
- Autobabeserako materiala ondo ezagutzea
- Autoerreskaterako teknikak menperatzea

- 1. eta 2. mailetak baldintzak betetzea
- Hiru mailetak ikastaroak antolatzeko, zuzentzeko, programatzeko eta emateko gaitasun pedagogikoa izatea

ALPINISMOA

1. maila. MONITOREA

Goi mendietako glaziarretan hasiera zuzendua, arrakaletatik erortzeko arriskurik ez egon arren, pasabideetan sokaren oinarritzko erabilera egitea beharrezkoa izan daitekeenean.

- Goi mendian hiru urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Glaziarretan igoerak egin izana, 2500 metrotik gorako mailetan edo neguko baldintzetan
- Goi mendiko arriskuen oinarritzko ezagutzak
- Orientazio eta kartografiako oinarritzko teknikak menperatzea
- Elur inguruen oinarritzko ezagutza
- Nork bere burua gelditzeko teknikak menperatzea
- Igotzeko eta jaisteko oinarritzko teknikak menperatzea
- Pioleta eta kranpoiak erabiltzeko oinarritzko ezagutzak
- Segurtasunarekin lotutako oinarritzko teknikak menperatzea
- Meteorologiako oinarritzko ezagutzak
- Elur jausien sistemen ezagutza aurreratuak
- Neguko materialak ezagutzea
- Mendiko elikadurari eta prestakuntza fisikoari buruzko oinarritzko ezagutzak
- Elur jausietako biktimak erreskatatzeko tresnak (ARVA) ondo ezagutzea
- 1. mailako ikastaroak emateko gaitasun pedagogikoa izatea

2. maila. INSTRUKTOREA

Goi mendietako glaziarretako ezagutza hobetzera zuzendua, arrakaletatik erortzeko arriskua dagoenean eta 60 gradu arteko maldak daudenean nahiz soken erabilera aurreratu egin behar denean.

- Goi mendian 4 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Glaziarretan igoerak egin izana, 2500 metrotik gorako mailetan edo neguko baldintzetan, 60 gradu baino gehiagoko maldetan eta D mailako zailtasunarekin
- Harkaitzean, elurretan eta izotzetan segurtasun eta igoera teknikak menperatzea. Ibilbide luzeetan progresio teknikak menperatzea. Glaziarretan sokak erabiltzeko sistema menperatzea
- Arrakaletan autoerreskaterako oinarritzko teknikak menperatzea
- Rappela egiteko oinarritzko teknikak menperatzea
- Trakzio pioletaren oinarritzko teknika ezagutzea
- Elur inguruen ezagutza aurreratuak
- Meteorologiaren esparruko ezagutza aurreratuak
- Kartografiako eta orientazioko ezagutza aurreratuak
- 1. eta 2. mailetak ikastaroak antolatzeko, zuzentzeko eta emateko gaitasun pedagogikoa izatea

3. maila. IRAKASLEA

Inguru mistoetako eta glaziarretako teknikak, trakzio pioleta, Drytoolig, etab. hobetzera zuzendua. Lurrean Eskolan mendiko batzordekide izateko hautagai izan daiteke, eta unitate didaktikoak, azterketak eta EGMEK egoki deritzon bestelakoak prestatzen lagundu beharko du.

- Goi mendian 5 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Horma mistoetan edo glaziarretan eskalatu izana, 2500 metrotik gorako mailetan eta 5 gradu baino gehiagoko zailtasun maila duten izotz hormetan eta MD inguru mistoan
- Hormetan eta arrakaletan autoerreskaterako teknika aurreratuak ezagutzea
- Trakzio pioleta erabiltzeko teknika aurreratuak menperatzea
- Inguru mistoan teknika aurreratuak ezagutzea
- 1. eta 2. mailetak baldintzak betetzea
- Hiru mailetak ikastaroak antolatzeko, zuzentzeko, programatzeko eta emateko gaitasun pedagogikoa izatea.

AMILDEGIAK

1. maila. MONITOREA. Amildegietan oinarrizko teknikak ikasten hastera eta ezagutzera zuzendua, ur emariaren baldintzak egokiak diren kasuetan.

- Amildegia jaisten 3 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Erdi mailako amildegien jaitsiera egin izana
- Harkaitz eta ur inguruak ezagutzea
- Ur emarien arriskuak ezagutzea
- Finkagailuak ezagutzea.
- Meteorologiako oinarrizko ezagutzak.
- Kartografiako eta orientazioko oinarrizko teknikak menperatzea.
- Jaisteko oinarrizko teknikak menperatzea.
- Progresiorako oinarrizko teknikak menperatzea.
- Autoerreskaterako oinarrizko teknikak ezagutzea.
- 1. mailako ikastaroak emateko gaitasun tekniko izatea

2. maila. INSTRUKTOREA

Amildegietan teknika aurreratuak hobetzera zuzendua, ur emariaren baldintzak egokiak ez direnean.

- Amildegia jaisten 4 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Zailtasun handiko amildegia jaitsi izana
- Baldintza desegokietan segurtasuneko eta progresio teknikak menperatzea
- Autoerreskaterako teknikak menperatzea
- Meteorologiako ezagutza aurreratuak
- Kartografiako eta orientazioko ezagutza aurreratuak
- 1. eta 2. mailako ikastaroak antolatzeke, zuzentzeke, eta emateko gaitasun pedagogikoa izatea.
- 1. mailako baldintzak betetzea

3. maila. IRAKASLEA

Ur bizietako baldintzetan teknika aurreratuetan espezializatzen zuzendua; Lurralde Eskolan mendiko batzordekide izateko hautagai izan daiteke, eta unitate didaktikoak, azterketak eta EGMEk egoki deritzon bestelakoak prestatzen lagundu beharko du.

- Amildegia jaisten 5 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Oso zailtasun handiko amildegia jaitsi izana
- Ur bizietako baldintzetan segurtasuneko eta progresio teknikak menperatzea
- Ur bizietan autoerreskaterako teknikak menperatzea
- Hiru mailako ikastaroak antolatzeke, zuzentzeke, programatzeko eta emateko gaitasun pedagogikoa izatea
- 1. eta 2. mailako baldintzak betetzea

ESPELEOLOGIA

1. maila. MONITOREA

Kobazuloetan oinarrizko teknikak menperatzen eta ezagutzen hastera zuzendua.

- Kobazuloetako ibilbideetan 3 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Erdi mailako zailtasuneko kobazuloetako ibilbideak egin izana
- Lur azpiko ingurua ezagutzea
- Kobazuloetako arriskuak ezagutzea
- Finkagailuak ezagutzea
- Meteorologiako oinarrizko ezagutzak
- Kartografiako eta orientazioko oinarrizko teknikak menperatzea
- Jaisteko oinarrizko teknikak menperatzea
- Progresiorako oinarrizko teknikak menperatzea
- Autoerreskaterako oinarrizko teknikak menperatzea
- 1. mailako ikastaroak emateko gaitasun pedagogikoa izatea

2. maila. INSTRUKTOREA

Kobazuloetan teknika aurreratuak hobetzera zuzendua.

- Kobazuloetako ibilbideetan 4 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Zailtasun handiko kobazuloetako ibilbideak egin izana

- Baldintza desegokietan segurtasuneko eta progresio teknikak menperatzea
- Autoerreskaterako teknikak menperatzea
- Meteorologiaren esparruko ezagutza aurreratuak
- Kartografiako eta orientazioko ezagutza aurreratuak
- 1. eta 2. mailetako ikastaroak antolatzeko, zuzentzeko, eta emateko gaitasun pedagogikoa izatea.
- 1. mailako baldintzak betetzea

3. maila. IRAKASLEA

Baldintza desegokietan teknika aurreratueta espezializatzeraz zuzendua; Lurralde Eskolan mendiko batzordekide izateko hautagai izan daiteke, eta unitate didaktikoak, azterketak eta EGMEk egoki deritzon bestelakoak prestatzen lagundu beharko du.

- Kobazuloetako ibilbideetan 5 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Oso zailtasun handiko kobazuloetako ibilbideak egin izana
- Hiru mailetako ikastaroak antolatzeko, zuzentzeko, programatzeko eta emateko gaitasun pedagogikoa izatea
- 1. eta 2. mailetako baldintzak betetzea

MENDIKO ESKIA

1. maila. MONITOREA

Mendiko eskian maila errazeko ibilbideak egiten hastera zuzendua.

- Mendiko eskian 3 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Erdi mailako zailtasuneko mendiko eskiko ibilbideak egin izana
- Elur inguruaren eta goi mendiko arriskuen oinarritzko ezagutzak
- Elikadurari eta prestakuntza fisikoari buruzko oinarritzko ezagutzak
- Pioleta eta kranpoiak erabiltzeko oinarritzko ezagutzak
- Nork bere burua gelditzeko teknikak menperatzea
- Elur jausien sistemen ezagutza aurreratuak
- Segurtasuneko oinarritzko teknikak menperatzea
- Meteorologiaren esparruko oinarritzko ezagutzak
- Kartografia eta orientazioko oinarritzko teknikak menperatzea
- Mendiko eskia egiteko materialak ezagutzea
- Elur jausietako biktimak erreskatatzeko tresnak (ARVA) ondo ezagutzea
- Eskiekin igotzeko eta jaisteko oinarritzko teknikak menperatzea
- 1. mailako ikastaroak emateko gaitasun pedagogikoa izatea

2. maila. INSTRUKTOREA

Mendiko eskiekin maila zailko ibilbideak egiteko gaitasuna hobetzera zuzendua.

- Mendiko eskian 4 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Oso zailtasun handiko mendiko eskiko ibilbideak egin izana
- Malda handietan sokekin segurtatzeko teknikak menperatzea
- Eskiekin jaisteko teknika aurreratuak menperatzea
- 1. eta 2. mailetako ikastaroak antolatzeko, zuzentzeko, eta emateko gaitasun pedagogikoa izatea
- 1. mailako baldintzak betetzea

3. maila. IRAKASLEA. Mendiko eskiekin oso zailtasun handiko ibilbideak, hainbat egunetakoak edo glaziarretakoak, egiteko gaitasuna hobetzera zuzendua; Lurralde Eskolan mendiko batzordekide izateko hautagai izan daiteke, eta unitate didaktikoak, azterketak eta EGMEk egoki deritzon bestelakoak prestatzen lagundu beharko du.

- Mendiko eskian 5 urte baino gehiagoko esperientzia izatea
- Oso zailtasun handiko eta bi egun baino gehiagoko iraupeneko mendiko eskiko ibilbideak egin izana
- Arrakaletan erreskatatzeko teknika aurreratuak menperatzea
- Glaziarretan sokekin lotzeko teknikak menperatzea
- Tratatu gabeko elurrean edo elur zailean jaisteko teknikak menperatzea
- 1. eta 2. mailetako baldintzak betetzea
- Hiru mailetako ikastaroak antolatzeko, zuzentzeko, programatzeko eta emateko gaitasun pedagogikoa izatea